

1. ESKOLAKO AGENDA 2030: Garapen Jasangarrirako Helburuetan oinarritutako programa. Honakoa bostgarren ikasturtea izango da Eskolako Agenda 2030 programan Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ezagutzen hasi ginelako.

2-3. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

Mundu mailan GJHak 17 dira baina Euskadin beste bat gehitu da: "Hizkuntza eta kultur aniztasuna". Hasteko 15. aukeratu genuen, "Lehorreko ekosistemen bizitza". Basoak ikasturte batean, zelaiak, larreak eta landare-itsutasuna, hurrengoan. Ondoren, 7. GJHa: Energia, eskuragarri eta ez-kutsatzailea. Eta hurrengo bi ikasturteetan **11. GJH-arekin gabiltza: HIRI ETA KOMUNITATE IRAUKORRAK**. Eta honen barruan, **MUGIKORTASUN JASANGARRIA** lantzen arituko gara.

4. ZER DA GARAPEN JASANGARRIA

Ematen den definizioetako bat honako hau izan daiteke: "Gaur egungo premiak asetzeko gai den garapena, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrak asetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe." Oso garrantzitsua da hurrengo belaunaldiak kontuan izatea. Hemendik aurrera, egiten diren ekimen guztiak jasangarriak ote diren aztertu beharko da. Izan ere, planeta ez da gurea baizik eta maileguan hartuta dugu eta zaindu egin behar dugu ondorengoengana egoera onean iristeko.

5. NONDIK SORTU DIRA 17 HELBURU HAUEK?

Garapen jasangarriari buruz 2015an egindako Mundu Gailurrean, Nazio Batuen Erakundeko Estatu Kideek Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuten. Agenda hau Ekintza Plan bat bezalakoa da. Mundu mailako lorpenak bilatzen dira: pobrezia desagerraraztea, planeta babestea eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzea, hau da, pertsonen bizitzak eta etorkizunerako ikuspegiak hobetzea mundu osoan.

Agenda hau lantzeko, 17 Helburu definitu dira. Hauek arlo ezberdinak dituzte kontuan: ingurumena, gizartea eta ekonomia. Etorkizuna izan behar duelako: bizigarria, bideragarria eta bidezkoa. Eta guztiaren artean, garrantzi handia ematen zaio: **INOR ATZEAN EZ UZTEARI**.

6. 2025AN GAUDE!

Agenda 2015ean jarri zen martxan eta finkatutako helburuak lortzeko 15 urtetarako plana ezarri zen (2015tik 2030ra). Gaur egun, hainbat lekutan aurrera egiten ari dira, baina, oro har, Helburuak lortzera bideratutako neurriek ez dute behar den abiaduran aurrera egiten.

GJHak lortzeko bost urte besterik ez dira falta. 2019ko irailean egindako GJHei buruzko goi-bileran, munduko liderrek hamar urteko ekintzak eta emaitzak eskatu zituzten, eta hitz eman zuten dirua mobilizatuko zutela eta erakundeak indartuko zituztela Helburuak aurreikusitako datan, 2030ean, lortzeko, inor atzean utzi gabe.

Nazio Batuen erakundeak erabaki du lurralde bakoitzak bere ezaugarriak hartu behar dituela kontuan ibilbide hori egiterakoan. Eta horretarako, gizarteko sektore guztiak mobilizatu behar dira.

- **Mundu mailako ekintzak** gauzatu behar dira, horretarako behar diren baliabideak bermatuz.
- **Tokiko ekintzak:** Herrialde bakoitzak garapen jasangarriaren bilaketan erronka zehatzak dituenek, bakoitzak bere helburuak finkatuko ditu, tokian tokikora egokituz.
- **Pertsonen mailako ekintzak:** herritar bezala eta talde moduan ere, eraldaketak bultzatuko dituen mugimendu geldiezina sortzeko ekintzak guztiok burutu behar ditugu (gazteria, gizarte zibila, komunikabideak, sektore pribatua, sindikatuak, zirkulu akademikoak....).

7. 11. GJHREN ERREFERENTZIAZKO HELMUGAK

Maila globalean, udalerriak inklusiboak, seguruak, erresilienteak* eta jasangarriak izan daitezten lortzea du helburutzat. Gure udalerrietan Foru Aldundiak ezarritako helmugak izaten dira erreferente bezala, Gipuzkoako testuingurura eta errealitatera egokitzen direlako. Helmuga horiek hainbat gairi heltzen diote, hala nola: mugikortasun jasangarria; urbanizazio inklusibo, jasangarri eta parte-hartzailea, udalerrien inpaktua murriztea eta jasangarritasun-planak dituzten hiri eta herrien kopurua handitzea.

Eta mugikortasun jasangarriarekin bat datozenak, honako helmuga zehatzak ditugu:

11.2.- Garraiatzeko modu jasangarrien erabilera sustatzea.

11.3.- Urbanizazio inklusiboa, parte-hartzailea eta jasangarria areagotzea.

11.6.- Herrien ingurumenarekiko inpaktu negatiboa murriztea, arreta berezia eskainiz airearen kalitateari eta hondakinen kudeaketari.

***Erresiliente** izatea gure bizitzan aurki ditzakezun konplikazioei aurre egitea da eta arazoek konponbide bat dutela sinestea. Naturan aurki dezakegun adibide bat: ihia. Toki hezeetan hazten diren belarkiak dira eta zurtoin zuzena edukitzeaz gain oso malgua dute. Oso haizetsuak diren egunetan, asko doblatzen dira eta goiko puntak lurra ukitu dezake. Halere, ez dira inoiz apurtzen eta haizea baretzean berriro jartzen dira tente. Ihia apurtzeko zorian egon daiteke, baina ez da apurtuko. Horixe da erresilientzia, limitean egon arren baztertzeko ez dena.

Beste definizio bat: Izaki bizidun bat agente asaldatzaile baten edo egoera kaltegarri baten aurrean egokitze gaitasuna.

8. HELBURUAK BANAN BANA

Esan bezala, 17 GJHak Nazio Batuko Erakundeak finkatu ditu. Helburu horiek elkarren artean erlazionatzen dira eta egunero aurre egin behar diegun erronka globalak txertatzen dituzte, hala nola pobrezia, desberdintasuna, klima, ingurumen-degradazioa, oparotasuna, bakea eta justizia.

UNESCO, hezkuntza, zientzia eta kulturarako Nazio Batuen Erakundea da eta bideo bat sortu du helburu hauek aurkezteko, banan bana. Unesco Etxeak, bideo horiek euskarara itzuli ditu.

Bideo orokorrak (6'00''): <https://www.youtube.com/watch?v=IT9rJkK6WiU>

11. GJHren bideoa (2'00''): https://www.youtube.com/watch?v=fHKnCMfoq_s